

IVAN ZULUETA

# Kameraren begiak irentsia

Isilpean pasa zen Ivan Zulueta (Donostia, 1943) *Arrebato* film luzea estreinatu zen urtean, 1979an. Beharbada ikusleak ez zeuden prest; beharbada ez zen garai egokiena. Urteek aurrera egin ahala ordea, zinema kontuetan adituak direnek maisulantzat jotu dute Zulueta ondutako pelikula. Hona hemen zuzendari baten eta bere obraren historia txikia.

ION OLANO

Ivan Zulueta, *Arrebato* filmaren grabaketan.

**SESIO BIKOITZAK**, hirukoitzak, amaiezinak gogoan ditu Zulueta mutilarotik. Gaztaroan, erabat erori zen zinemaren liluraren mende. Donostiako Zinemaldian Alfred Hitchcocki bostekoa eman zioneko ez du sekula ahaztuko, *Psycho* (1960) baita bere filmik maiteena. Zinemazale sutsua, sutsurik bada, Zinemaldian *Vertigo* (1958) filmeko kreditu tituluak txalotu zituen, “jendeak jakin zezan hori txalotu beharra dagoela”.

Ikastera joan zen Madrilera, eta ondoren, Arts Students League-ra, New Yorkera. Handik Madrilera bueltan, Zine Eskola Ofizialean ikasi zuen. Lilura bizibide bihurtzen saiatu zen Zulueta. New Yorken ezagututako *pop-art* eraginda, kartelgile aritu zen hainbat filmetan, Jose Luis Borau irakasle eta lankidearen El Iman produkzio etxearentzat. Super 8 formatuan irudien granoarekin eta efektuekin esperimentatzen aritu zen, eta gaur egun boladan dauden irudi “zikin” horien antzekoak lortu zituen. Gainera, El Imaneko filmetatik sobratutako pelikula zatiekin, *tempo*-a eta eritmoarekin saiakerak egiten aritu zen. Hainbat film labur egin zituen horrela. Horietako bat, *Leo es Pardo*, Berlingo Zinemaldian estreinatu zuten.

Film horren amaierako eszena bat izan zen, hain zuzen ere, *Arrebato* (1979) luzemetraiaeren enamuina. Leongo (Espainia) enpresari batek, Nicolas Astiarragak, zineman inbertitu nahi zuela-eta, Zulueta proiektua finantzatzeko 3 milioi pezeta –20.000 euro inguru– eman zituen, eta filmatzeko bi asteko epea. Hasi zituzten filmaketak, baina bi egunetarako

aurreikusitakoa bi astera luzatu zen. Produktzioa 14 milioi pezetaraino –80.000 euro inguru– garestitu zen. Hala, hainbat langilek proiektua utzi zuten, esate baterako, soinu teknikari guztiek.

Filma egin zutenek diotenez, oso aurrekontu txikiarekin egin zen luzemetraia. “Erakutsi genuen diru gutxiarekin egin daitekeela film bat, nabarmenegi geratu gabe”, dio Zulueta. Zorionez, dirutzaren faltan, eros ezin daitekeen zerbait zeukan *Arrebato*: talentua.

Hotz hartu zuen, dena den, ikuslegoak. Ia oharkabean igaro zen, lilura gehiegi eragin gabe, eta horrek Nicolas Astiarraga produktorearekin haustea ekarri zuen. Urte ilunak heldu ziren Zuluetaentzat. Donostiara erretiratu zen. Bazirudien, *Arrebato*ko pertsonaiak bezala, kameraren begiak irentsi zuela.

Elkarrizketa batean aitortu zuenez, Zulueta bazuen gogoan zein izango zuen hurrengo filma: “Ekoizleari aurkeztu nion gidoi bat, Edurne Zuri eta terrorista batzuei buruzkoa. Astakeria galanta, baina egin zitekeen. Gidoia badago, aktore talde eta guzti. Baina banekien, *Arrebato* arrakastarik izan ezean, oso zaila izango zela beste bat egitea”.

Eta hala izan zen. Zinearen lilura heroinak estali zuen, eta Zulueta ez du inoiz gehiago luzemetraiarik egin. TVE telebista katearentzat egin zuen laburmetraia pare bat, baina lan txikiatarako ez bada, gutxitan hartu du kamera eskutan. Hori bai, urterik ilunenetan ere ez du kartelgintza utzi. Aipagarriak dira, besteak beste, Jose Luis Garcí, Pedro Almodovar eta

## Pausa, lilura eta gainezkaldia

Pausa kontzeptuaren jiran hegaldatzen da *Arrebato*. (Kon-tuz, segidan filmaren argumentua dator). Makalaldian dabil Jose Sirgado zinema zuzendaria, otso-gizon filmak baino ez zaizkio bururatzen. Heroinari fidel, bikote harremana zaila bihurtzen da hirugarren kidea sartzen denean. Halako batean, Pedroren fardel bat jasoko du etxean. Aspaldiko neskalagun baten anaia da Pedro, zinemarekin obsesio-nua bizi dena, zehazki, pausa kontzeptuarekin. Erabateko lilura berreskuratzea da bere helburu bakarra. Gainezkaldia. Txikitari jostailuei, kromoei begira sentitzen zuen hordialdia sentitu nahi du berriz eta sentiarazi, zinemaren bidez.

“Akilesen orpoa, ihes puntua, gure aukera bakarra”. Hala definitzen du Pedrok pausa. Jose Sirgadori bidalitako paketea kasete bat dago, eta film bobina bat. Kasetean

hitzez, filmean irudiz, Pedrok aurkikuntza izugarria egin duela azalduko dio. Kamerarekin bere burua filmatu zuela lo zegoen bitartean, eta filma positibatzean fotograma gorri bat zegola oharu zela. Kamerak irudi bat hartzeari uko egin izan balio bezala. Pedrok sentitzen zuen liluraren konplize balitz bezala. Film gehiago egin ahala, fotograma gorriak ugarituz joango dira. Pedrok susmatzen du, film bobina osoa gorri betetzen denean, desagertu egingo dela. Hala esango dio Jose Sirgadori.

Jose Pedroren etxera ailegatzen denerako, berandu izango da. Kameraren begiak irentsia du jada. Jose Sirgado –zinemaren gaitzak kutsatua bera ere– kontziente da hau-tatutako bideak dakarkion tragediaz. Mantaz bildu, eta kamerari begira, patuari itxarongo dio.

Luis Buñuelen filmentzat egindako afixak. 2002an egindako elkarrizketa batean, film bat zuzentzeko gogoz zebilela adierazi zuen Zulueta. Geroztik ez da ezer jakin.

### Arrebato, erabateko lilura

1979ko udan estreinatzen zen Madrilgo Azul antzokian. Produkzio arazoengatik, banaketa eskasa izan zuen. Esanguratsua da, esate bate-rako, duela gutxira arte bideoan egon ez izana, *El País* egunkariak bilduma batean DVDA kaleratu zuen arte, hain justu. Eskuz esku pasa diren kopia piratez aparte, aukera gutxi izan da *Arrebato* ikusteko. 2002an, hainbat zuzendari eta produktorek Zuluetaren lana berreskuratu nahi izan zuten atzera begirakoa eginez, eta horrek bere hainbat film zirkuitu komertzia-lean berriz estreinatzea ekarri zuen. Zulueta-ren sorterrian, Donostian, erakusketa bat eskaini zioten, polaroid argazki eta guzti.

Denboraren joanak gaztetu duen filma da Zuluetaren. Irudiaren oso kontzeptu moder-noarekin filmatu zuen, eta imajina zaharkitu-ngatik ez bada, aise pentsa daiteke atzo goi-zekoa dela. Produkzioa ia hutsaren parekoa izan zuen: kreditu tituluan 30 izen baino ez dira agertzen, eta Zuluetaren aitortu duenez, fil-maren produkzioaz sei lagun arduratu ziren. Bi *travelling* baino ez zituzten egin. Garabirik? Ezta pentsatu ere.

Duela 28 urte proiektatu zuten *Arrebato* Donostiako Zinemaldian. Urte hartan lan apartekorik aurkeztu ez zenez, aitor du Zuluetaren, bere bizitzan lehen aldiz, sari bat espero zuela. Ez zen hala izan. Urteen poderioz, baina, kultuzko filma bihurtu da. Zine eskole-tan aztertzen dute, Espainiako zinemaren modernizazioaren ikurtzat dute askok.

Aktore bikainak bildu zituen Zuluetaren fil-merako. Jose Sirgado protagonistaren rola jokatzen duen Eusebio Poncelak, esate batera-

ko, lan ezin hobea egin zuen. “*Arrebato* egin nuenetik, ez dut gehiago neure burua ikusi nik egindako filmetan” esan zuen telebistan egin-dako elkarrizketa batean. Aktore nagusien artean, Cecilia Roth argentinarra eta Will More, Zuluetaren fetitxea, aipa daitezke. Horiez gain, Luis Ciges handia eta Antonio Gasset zine kritikaria azaltzen dira filmean.

Apurtzailea izan zen, eta da, zentzu askotan *Arrebato*. Gaia bera bitxia da oso. Filmeko irudi askok, halaber, begi garbiak kolpatu ditzakete. Heroina injektatu eta esnifitzen dute. 1979. urtea da. Gizona biluzik agertzen da, ia emakumea baino gehiago. 1979. urtea da. Irudi batzuetan, harreman homosexualak iradoki dira. 1979. urtea da. Soinuaren erabile-ra eta musika, bikainak dira. Negativo taldeare-na da musika, eta Francisco Peramos da soinu ingeniaria. Argazkia, aipagarria hori ere, Angel Luis Fernandezren ardura izan zen.

Bisionarioa ere bada filma. Gaur-gaurkoa dirudi irudiaren trataeran, gaietan, formatuen nahastean, gauza askotan. Bisionarioa, izan ere, filmaren une batean ZP-11 xanpua iragar-tzen dute. Ezer ekarri al dizue gogora? ■



## Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684

e-posta: [ondarre@hispavista.com](mailto:ondarre@hispavista.com) [www.acvmultimedia.com/ondarre](http://www.acvmultimedia.com/ondarre)